

## Entregatu dugu Londresen Irizar i2e-ren bigarren unitatea

Ormaiztegin, 2015eko uzatailaren 30an

**Autobus erabat elektrikoak abuztuan jarriko dira martxan intentsitate handiko bi lineatan, Waterloo Station eta Victoria Station lotzen dituen 507 linean eta Waterloo Station eta London Bridge Station lotzen dituen 521 linean.**

Go Ahead London-i entregatutako bi unitate horietako lehena "Clean Bus Summit" gailurraren testuinguruan aurkeztu zen ekainaren 29an Londresko Udaletxean. Gailur hori, autobus garbien mundu mailako adierazpenaren ganean eraikia, Londresko alkatetzak antolatu zuen C40 Klimatika adierazpenean buru den Taldearekin lankidetzan. Adierazpen hori Buenos Airesen sinatu zen eta Lima,artzelona, Amsterdam eta Erroma lotu zaizkie, besteak beste.

Bi Irizar i2e autobus hauek, Irizar Taldeko teknologiarekin fabrikatutakoak oso-osorik, Europako beste hiri batzuetan 2014an entregatutakoei gehituko zaizkie.

Mike Weston TfL (Transport for London) autobus zerbitzuko zuzendariak esan zuen: *Londres beti egon da abangoardian teknologia ekologikoak bereganatu eta probatzeko orduan. Gure flotan autobus elektriko kopurua hazi egin da eta ikasten ari gara gure zerbitzua zertan hobe dezaketen eta gure bezeroei zer onura ekar diezaioketen.*

Richard Harrington, Go-Ahead London-eko ingeniaria zuzendariak esan zuen: *Londresko autobusak ingurumenarekin munduko flota errespetuzkoena bihurtzeko bidean daude. Lehenengoak izan ginen hiriburuan guztiz elektrikoak diren ibilgailuak martxan jartzen eta 18 hilabeteko zerbitzu fidagarriak frogatzen du energia mota hau irtenbide bideragarri adela. Irizarri ongietorria egiten diogu merkatu honetara eta haiekin lan egiteko irrikatan gaude londrestar guztien onerako.*

Urrats horrekin Irizarrek erakutsi du ez bakarrik herrialde horietako merkatu, operadore eta araudietara egokitzeko gaitasun oso duela, baina, gainera, hiri mugikortasunean lider gisa posizionatzeko asmoa agertu du. Hirietako ingurumenaren iraunkortasun eta hobekuntzaren aldeko apustu argia da.



*Hau pauso garrantzitsua da Irizarrentzat, Go-Aheaden aurreikuspenak eta Erresuma Batuko araudia beteko duten produktua eta zerbitzua garatzen laguntzen baitigu. Gainera, Irizarren produktu guztien segurtasuna, fidagarritasuna eta erosotasuna eskaintzea ahalbidetzen digu” esan zuen Hector Olabegogeaskoetxeak, Irizarko Elektromugikortasun Arduradunak.*

12m-ko autobusak dira eta ezaugarri nagusienak zoru baxu jarraitua eta bi ate bikoitz dira, nagusia arrapala elektrikoarekin. Motor elektrikoak 180 kWko potentzia du eta 282kWhko energia du biltegitatuta. Beraz, Londresko zirkulazio baldintzetan 160 eta 180 km artean egingo dituela aurreikusten da. Berrikuntza gisa aipa ditzakegu gidariaren gunerako hotz-bero unitate bat eta bandalismoaren aurkako itxiera osoa.

Kasu honetan Irizarrek autobus eta autokar fabrikatzaile gisa duen esperientzia handia baliatu du TfLren eta Go Ahead bezeroaren baldintza plegu zorrotzak betetzeko. Horrela, barruko antolamendua oso zabala da, 26 eserlekurekin eta MUP 1entzat plazarekin eta guztira 60 pertsonarentzako edukierarekin. Ibilgailuek Londresko estandar guztiak beteko dituzte floten kudeaketarako eta telemetriako sistema ontziratuetan